

(2)

25

simplicitas

Sabin Arana Goiri

(1865 - 1903)

1

Hona gizon arpatu horien bizitza laburki.
Alando-ko herriaan sortu zen, bere aitakamelu
huz gaurtaten etxe batean, San Bizente elizari
daxitokoa. Etzari zen mandurak ostialaren
25. ean gaurdikutan.

Familian izan zituzten zortzi haurrek
azkena.

Aita zuen Santiago de Arana. Ama Pascuala
de Goiri.

Birik Martixa sukarrak eta Martixa sukarrak
soro-atalak.

Santiago de Arana hiru parte hartu zuen bigarrea
Martixa-gelak, eta behar urtean zuen ibestekuan
egon Lapurdin, Ehenik Getharian, gero
Barenan, azkenean Ziburun eta Donibane
Lohizunen.

1873.eko aguritan Santiagok bere gaurak
deitu zituen ama, Paulina, Luis eta Sabin,
hito, hiru haur Higinenak.

Luis eta Sabin eskolan ikasi ziren Barenako
St Louis de Gonzague Mastekuan, bi urtez.

Sabinek Ehen Herriaren 1875.eko Mendakuta
egurrean egin zuen Donibane Lohizuneko elizan.

1876. ean Abanderat izuli ziren eta Sabin
ezari zuten Ordunako jesuiten Mastegian,
baxiler ateratzeko.

1881.eko etarrenean erri handi gortatu zen
hain xutek ikasimant pasatzeko Herriari.
Hir. urrana bartzin eman zituztaten azken
sakramentua. Aita Mendakuta gaurak
sion onartzin zuretz mandu hantarik

TSVP

hautitzen. Haurrak arrapostu: "Ez oraino".
Handik 22 urteren buruan Aita Mendibari izpirituzen
ziren, sendatu zuela Orduban gainituak
zerbitutako begiratzen zuela...

Izaiez lanperetik jaldi zen: elsaminal
eritogan pasatu zituen, eta etxerat itzuli.

Meditatu bi urteren gausua emanatu zioten.

Ordubantse Luis-ek utzi zituen Harlitzan
iderak eta goguan hartu ez zela espainola
bainan bakarrik estualduna. Idiera horiaz
parte eman zion Sabin. Hau etxerik
guti zera aski bixuratu zitzaion, bainan
ondoren, bere goguetatik egin eta, erori
zen anairaren erranerak.

Barehala eman zen estuara errotik
Itasi beharaz eta ez diru sogue biderditan
utziko bere xedeak.

Altameli atokak nahiko zuten jaldi-arazi.
Barzelenarat egin zuten itzuli bat, bainan
ez zuten lege-jatimiza batera kaltet.

Luis etxerintzari paratiko zitzaion.

Atandu itzulirik, Sabin-ek deliteratu
zuen Estuak-herriraren fitratzuko sailari
koluko zela.

Ager-arazi zuten fituraketa bat "Biztaya
por su Independencia", hots, "Biztaya bere
gain jartzeari buruz!"

Biztayar gazte zontarik harriku ziren
fitura horiaz eta afari batetarat gomitalu
zituzten Arana bi anairak, Sabin-ek
argi zitzaion bere xedeak.

Canzabari etxaldeen egin zen afari
famalua, eta hantzet Sabin-ek bere

zakua hustu zuten, erriaraz ziren egiten zuela
gaithearen aintzinean bere ontasun eta indar
guzien higalzetu Estuak-herriraren onetan.

Baztalliarrek ez zuten hofaturik jasaiten
ahak. goan ziren agurrik gate, bi anairak
bakarrik uzten zituztela...

Handik beriz egunen buruan 1893-ko
ektainaren 8-an "Biztayarra" Argeta jaldi
zen. Gero idaki zuten bi anairak "Euzkeldun
Baztallija". Bainan laster hasi zitzaizten
ektarrik gaterarrietan atakan, eta gausu
eman zuten, etxen alde bat.

Amandak ere eman zitzaizten gomaltzat.

Fiturategi bat muntatu zuten 1896-ean.

Ordullo urtean paper bat hedatu zuten
"Harlitzek eta Fueroez". Hamabertik mila
hegaldatu ziren lau aldekarak, eta
gazte harritz bildu ziren Sabin-en
ideretarak.

Orduban "Baseritara" delu astekari
bat atera zuten Luis eta Sabin-ek.

Etsai zontariek harrikatu zioten etxea,
bi anairak bertze muntak zitazarik.

Bainan Diputaziorako bozetan, Sabin
presentatu, eta 4.500 bozetan pasatu.

Handik laster Bietallo herriko etxean
hamar oheriazde hautakuntza izanen dira.

Sabin-ek muntatzen du egunkari bat
"El Correo Vasco", eta idazitzen "Centro
Vasco" etxea gazterarentzat.

1900-eko otsailaren 2^a-an Sabin Arana
ezkondu zen Sukarrietako Nicolasa de
Atrikallende: andere hunek ez bazuen
TSV

W

estola handia eta, Salin-ek ezker-aitzen
Bilboko Monumentu batetik 1901 zuen
bere hondur estolatzen. Ezkeren eta Euzkaden
izanik eritu zen eta Uztaritzen egin bere
andarraren Etxeparean.

"Euzkadi" eta "Patria" agertuak
ateratu zituen handik lester.

1902-ko martiazaren 25-ean Roosevelt
Presidentari gerosematik iguri nahi ~~hau~~ izan
zitzan Cuba Españelen agertuakak shos
egiten lagundu zuelakoz. Preso eman
zuten eta pajarat jaulitu. Gupel ez zuten
ketendun ezagutu.

Araoa gero jira zen Denidone Leizunak
paukatu beharrez.

Egun horietan ageritu zen antolatua bat
baizik. eta Abertzaleen alderdia suntsitatu
zela berze Alderdi berri batan egiteko,
"españolista" izanen zena. Araoa gero
zira laguna gututua bat gariza asmatu.
Nekari ez du behin ere jakin zen zitalen.

Handik laster brontze-eritasuna bildurik
medituz eron ziren hiltzera zuala.

Apartatu zen gertutua gertutuan
~~erantz~~ aintzinerat sendimendu
huberretan ageritu beharrez.

Hil zen 1903-ko azararen 25-ean,
38 urte zituelarik.

≡

SABIN ARANA-GOIRI

eta Iparraldea

Bibliografia

- S. de Arana-Goiri, "Obras completas", Buenos-Aires, 1965.
- P. de Basaldua, "El Libertador Vasco", Buenos-Aires, 1953.
- C. de Jemein, "Biografia de Arana-Goiri", Bilbao, 1935.
- E. de Arantzadi, "Ereintza", Auliamendi, 1980.
- P. Lafitte, "Sabin de Arana-Goiri! Gure Herria, 1966.
- P. Charritton, "P. Broussain: sa contribution aux études basques" (prestatzen).

Euskal-Herrien artean Frantziak eta Espainiak jarritz geroz, XVII. mendean (1660), Prinoetako hitzarmenean, beren "muga" delako hura, euskaldun frango iragan da alde batetik bertzera. Azken bi mende hontan bakarrik, gogoan har dezagun zenbat ihesliar joan den Frantzialdetik hegoalderat, dela 1789-eko nahasmenduari ihesi, dela Frantziako soldaduzkari, dela 1914-18-eko gerlari edo 1939-45-ekoari edo azkenik Algeriakoari. Bertzalderat ordean, Iparraldean bizi dauzkagu, bai Karlisten gerla denboretan, bai 1936-ean, honat etorri den Hegoaldeko euskaldun askoren semeak edo semeen semeak, eta ihesliarren uhaina ez dela oraino gelditu zorigaitzez, orok badakigu ere.

Ez dugu beraz zeren harri, ihesliarren ezin agortuzko ibaiean aurkitzen badugu Sabin Arana-Goiri eta, bertze ainitzek bezala, Bizkaitar honek ere, behin baino notan Iparraldean aurkitu balin badu ihes-leku eta aterbe.

I Iparraldeko egonaldiak

1873-eko uztail-agurrilean, Sabino-ren aita, Santiago Arana ihesi joan zen Iparralderat, Karlisten alde erabiliak zituen harma trafikuzko arrikutsu batzuegatik eta bere ganat deitu zituen andrea Paskuala eta haurrak. Horra nola Sabin Arana, bere amarekin eta haurridekin, Karlisten taldeen artean, Bergara eta Errenteria barna, Hendaiarat heldu zen, aitaren ondorat, Zortzi urte zituen beraz doiala Sabinoz Iparraldean sartu zelarik lehen aldikotz ^{Lapurdikoa} getarian uda iragan ondoan

2

Baionan jarri ziren etxeokak Chegaray karrikan (gaur Victor Hugo karrika) eta Luis ta Sabino bi anaiak sartu ziren Betharramitek orduan Espainiako karrikan zaukaten San Leon (gaur Saint Louis de Gonzague) deitu ikastegian. Adin hortan haurrek mintzaidaren ikasteko duten erraztasunarekin frantsesa ongi ikasi zuketan bi anaiak, hor egon ziren bi urtetan. Gero Donibane Lohitzunerat joan ziren Baionatik Arana-tarrak: Donibaneko elizan egin ere zuen Sabinok lehen jaunartzea, 1875-ean. Urte bat oraino irakasle berezi bederarekin etxen ikasten egonik - Nafartar apez batekin Luis eta aintzindari karlista arabar batekin Sabino - bi anaiak Hegoalderat itzuli ziren beren etxeokekin 1876-eko udazkenean.

1889-eko uda alderat, Sabinok 24 urte zituela, badakigu Parisera inokoa egin zuela Vichy eta Saint-Etienne-n gaindi - eskopeta eder bat erosi baitzuen ihizirako hiri hortan - eta beraz Iparraldean luzaz gelditu ez bazen ere, iragan bederen zen, baina xehetasun handirik ez dugu itzuli hontaz.

1899-ean aldiz, otsailaren 2-an ezkondu zelarik Nikole Atxikallende-Iturri-rekin, Sabino etorri zen berehala Lurdeserak bere lagunarekin, baina bai ta erigaitzitu ere bi lagunak Lurdes-en. Bere etxeokak deiturik Lurdes-erak, ~~bera~~ ~~indar~~ indarberritzerak, anaia Luis-en etxerat, etorri ziren Uztaritzerat. Artetik erraiteko, Uztaritze Etxeparean eta Jaungaztanean izan zuen luzaz Luis-ek bere bigarren egoitza, eta 36-ean oraino Uztaritzerat zen itzuli Sabino-ren anaia, Bre-tainia-ra joan aintzin adiskide zenbaiti buruz. Dena dela Sabino eta Nikole berriak Lurdes-en ziren otsailaren 23-an, ongi sendaturik, beren debozinezko urratsen buruzterat joanak.

Handik lands, 1901-eko buruilaren 1^o-an, L'Hendayais deitu Hendaiako berrikatariak dionaz, Sabino eta Luis Arana, Hendaiako herriko etxean elgarretaritzen diren Hegoaldeko eta Iparraldeko, ³⁰ euskaltzaleen erdian dabilta eta badakigu bestalde ez direla geldirik eta ixilik egoiten, baina bego hori geroko.

Egonaldi luzeagoa oraino egin behar du Sabinok Larrinagako presondegitik aterata, 1902-ko Azaroaren 8-an, Luzaide ta Arnegin barna, Frantziaren eremuetara etorri behar duelarik "Espainol despotismoari ihesi", berak dioen bezala. Donibane

Lohitzuneko Hôtel-de-la-Poste delakoan dago behin, Sylvain de Arbeste gaitzizena harturik. Gero andrea etortzen zaionean, Vichy-rat dohatzi biak, uretarat. Eguberri han iraganen dituzte eta Bizkaiarat itzuliko dira 1903-eko urte herrietan, Madril-eko Auzitegi Nagusiak barkamen erabakia hartuko duenean. Barkatuko ez zion bertze gaitz batek ordukotz hartua zuen zorigailteez gure gizona. Ez du bertze egon-aldirik egiten ahalko Sabinok Iparraldean, bere bizian. Urte bereko Azaroaren 29-ean hilen da-eta, Sukarrietan.

Hil ondoan bizkitartean, hona non 1937-eko udaberrian, Sabino-ren hil hori rat hurbiltzen delarik etsaia, haren gogoaren semeek eremanen dituzte Sabino-ren hezurak urrun aterberat. Norat ote, eta hain zuzen, berriz ere, Iparralderat: Oztibarreko Ibarren dugun Mixel Garikoitz sailduaren sortetxerat, Garaikotxerat. Han egon direla luzaz, Aita Larramendy zenak zaindurik, ongi badakigu. Agian laster jakinen du Euskal Herriak Sabino-ren hezurak, bertze hainbertze ihesliarrenak bezala, berak hautatu hobirat itzuli direla! Bakearen urtzoa bere tegirat azkenean itzuli zaulako seinale! (*ingés de Goyhenetxe eta Kimun Dubour*)

II Iparraldeari buruz iritziak

Horrenbertze 'egonaldi' Iparraldean egin duen gizonaren baitan zer eragil izan duen gure eskualde honek, atsegin ginuke jakitea. Baina ez da hori erraz ez baitaiku Sabinok bere etxekoan edo adixkideen alderat zauzkan sendimenduen berr: handirik utzi. Bere izkribuetan derabiltzan gai nagusiak, politikazkoak dira edo linguistikazkoak. Hor ditugu behar bilatu Sabino-ren ikuspegi ta iritziak Iparraldeari buruz.

Mintzairaren aldetik, aitor dezagun frantsesa ikasi badu ere Baionan haurrean Sabino Arana-k, euskara ez duela ikasi ez Baionan, ez Donibanen, nahiz Donibaneko haurren artean euskara nagusi zen orduan, gaur ez bezala. Geroago gaztetan, euskara ikasi nahiko duenean, Bizkaitarrari lotuko zaio eta Bizkaitarrak izanen dira haren erreferentziak, hala nola Astarloa, Zabala, Kapanaga, Mogel, Afibarro, Fray Bartolome, Elgezabal edo Uriarte, ~~Sabin~~ ^{az} ditu iduriz irakurri gure klasikoak ez Etxepare, ez Leizarraga, ez Axular. Aipu ditu halere Bonaparte, Van Ey, Inchauspe eta... Lévy d'Abartiague. Bestalde orduan hain modako iziren etimologie:

(...)

tan hasten delarik ez du bereizkuntzarik egiten euskalkien artean eta hor ditugu Iparraldeko izenak lekuko, hala nola Ayerra, Baigorri, Donibane Lohitzune, Donapale; eta Amezpil, Apezarena, Harizmendi, Hariztoi, Harretxe, Ihartza, Karrikondo, Uhalde; eta holako.....(Obras C., 702-809.orr.).

"Pater Noster"-en euskal itzulpenak nahi dituzelarik zuzendu, Ziberotarrenafartarrak bazter uzten ditu, egia erran, baina Diharassary-ren "Giristino Legea"(1887) harturik, Lapurtar itzulpena lantzen du, Hego-euskalkietako ondoti (O.C., 1909-1911). Bide beretik, hitz berriak asmatzen ari delarik Lapurdiko euskarak eskaintzen dion "erestun" - gure erraztun - hitzaren arabera sortzen ditu "burestun", "belastun", "bekostun", "besostun", "idustun", "garrestun", "eskestun" (O.C., 1015).

Gehiago oraino, ortografiaren berritzeari lotzen delarik Sabinok aitortzen du berritzapen nagusiak Bidasoaren iparraldetik heldu direla (O.C., 806) eta, geroan bertze trabarik aurkitzen badu ere bere bidean, hastapenean jaukitzen dituen idazleak ez dira ez Azkue-tiarrak, ez eta ere gure H - zaleak, baina bai, alde batetik Miguel de Unamuno ber-bera, eta bertzetik, Moguel eta Cardaveraz aintzineko harturik, K "letra mazonikoa" eta H "letra behargabekoa" onhartu nahi ez dituzten "tradicionalista" amorratuak (O.C., 43-68.). Badira hor gure Bizkaitar gaztearen zenbait orrialde geroztikako eztabaida asko argi ballezakete! Baina bego! Nahiz alpa ginetzazkeen oraino, Hendaia ta Hondarrabiako bi aldetako euskaldunek, beren ortografia bateratu beharrez, debaldetan egin zituzten bilkura famatuak (1901 eta 1902-an).

Politika gaietarak iragaltzarekin, erran behar dugu lehenik Euzkadiaren aitak Iparraldeko probintziak eta eskualdunak berak baliatzen dituela bere euskal aberri ideien finkatzeko eta zehazteko, hala nola Euskalerrria elkarrean gaitzesten duelarik, Gladstone herri-gizon ezagunari ongi-estorria bidali baitio "Euskal-erri-ingurura", Miarritzera etorri delarik, Miarritze bera Euskal Herria ez balitz bezala (O.C., 245.). Eta berdin eliza gizonen langile baila bat Erromarat prestatzen dutelarik Espainiako langileekin, iduri-ta euskaldunek berek ez lezaketen egin holako beila Iruñe, Gasteiz eta Baionako apezpikuak buru, Irlandak eta Poloniarrek egin ohi dituzten bezala (O.C., 256.).

1894-eko euskal besta handietan, Donibane-Lohitzunen agertzen baita zazpi euskal herrien harmarria, "Zazpiak-Bat" formularekin, Sabino Aranak galdatzen diote beti "frantsesez eta espainolez" mintzo diren berriketariak noiz ote ikararatsiko duten. Bidasoaren Iparaldean bizi direla Lapurtarrak, Euzenabartarrak eta Ziberotarrak, oro euskaldunak (O.C., 358-359.). Bizkaitar abertzalearentzat alabainan eta abertzale alderdi ororentzat, Nafarroa, Gipukoa eta Araba Bizkaitarekin haurride dira eta berdin horiekin Laurdi eta Ziberoa (O.C., 1359.).

Horiek hola izanez ez gira harritzen ikusten dugularik gure anaia bizkaitarra Iparaldeko bere haurrideekin harremanetan sartzen: Jadanik aipatu ditugu Hendaiako eta Honarriabiako bilkuzak eta orduan Zalduby eta Guilbeau, Arbelvide, Daranatz, Hiriart-Urruty, Broussain eta Iparaldeko bertze euskaltzaleekin ibili solasak, bainan izan da bertzerik. 1897-an Ipar-Ameriketako herritar Karlisteri bere politika paperak helarazteko, Kanboar adiskide bat hartu zuen Sabino Aranak: P. Goytino, "California-ko Eskual-Herria-ren buruzagia (O.C. 1271)

Bainan bazekien ere, beharrez, Abando-ko semeak, Iparaldeko anaien gaitzesten edo akulatzen; hots horien egitekoetan sartzen etxekoetan bezala: 1897-an, Donibane-Lohitzuneko herriak prestatu zituen "Fêtes de la Tradition Basque" deitu

~~1897-eko~~ Euskal-Pesta handiak; Baserritarraren 15. eta 16. zenbakietan, Sabino Aranak erakutsi zuen zorrozki, zer gibelondo triste sumatzen zioten egun horietan Frantsesez idatzi programa irakurri-ta, "grande patrie" gora eta "petite patrie" behar zerasala, gu lehen hain handi izanak, arrotzen jostagailu nahi gintuzteke "Euskaltzale" ezagun batzuek gogor salatu zuen: "Bai, zinez, Herri ezdeusa, gure Herria, dantzari, soinulari ta pertsularirik bainik sortzen ez dukana! Herri ezdeusa abertzalerik sortzen ez dukana! Herri ezdeusa, hihaur hire garailaren jostagailu izaiten bainik axola ez haizen Herri gaixoa!" (O.C., 1381.).

Hil aintzin bizkitartean, 1902-eko uztailaren 27-an agertzen den "La Patria" astekarrian, Frantziako gobernuak girstinoeri egiten ari dioten gerla antisusiaren berriak jakinik bere Larrinagako presondegian, Sabino Arana-Goiri-k azken dei samin bat helarazten diote: "Bidasoaren eskuin-aldeko euskalduneri":

1902-eko uztailaren 27-ean, Frantziako gobernuak girstinoeri egiten ari dioten gerla antisusiaren berriak jakinik bere Larrinagako presondegian, Sabino Arana-Goiri-k azken dei samin bat helarazten diote: "Bidasoaren eskuin-aldeko euskalduneri":

Nola duzue jasaiten ahal, zuek gure anaiak, Frantzia horren uztarri dorpea? Ala nahiago duzue ~~...~~ baino frantsés izan, zuen kristautasunari uko egin beharrez ere? Zer duzue ala ahantzi zuen odola, zuen etxea, zuen ama? Ez ote dakizue euskaldunak ziretela eta ez frantsesak, ez bertzeak? Iratzar zaitzete askoneki eta jéiki. Ez bazirezte orai kutitzen, orduan beraz ez zirente bakarrik loakartuak, baina bai zorigaitzez hilak (O.C., 2203).

III Iparraldeko oihartzunak

Zer oihartzun ukan zuen Iparraldean Sabino Arana-Goiri-ren mezuak XX. mende honen hastapenean ez da erraz jakitea. Badakigu eta Bizkaitarraren deiak Hegoaldearen bazter orotarari héltzen lanak dituela, oraino ere, 80 urteren buruan. Joaiten ari zaizkum mende hontako historiaren gatik, aitortu behar dugu Iparraldeak luzaz arrotz izan duela abertzaletasuna. Bizkaitartean 14-18-eko gerlaz hara indiko historiaren bideak eta hidedak ikertzearekin ohartzten gira ez zutela Lapurdiko edo Ziberoko euskaldun zenbaitek batere gaizki hartu Abandoko semeak beta zioten lehen deia. Hor ditugu lekuko, Manex Etxamendi pertsulariaren 1904-eko pertsuak, Bizkaitarrari ihardetsiz bezala jarriak:

"Guri eskua ra maite hau kentzekotzat Frantziak,
 "Hobe laite Frantziatik baginte bereziak!" (Manex Etxamendi bertsularia, P. Lafitte, Auspua 109-110)

Sabinok berak ezagutu zituen Iparraldeko euskaldunetz eta euskaltzalez ari girenean ongi badakigu ongi ez zuela harreman onik izan horietarik askorekin, baina erran behar ere da horietarik zenbait, Martin Guilbeau eta haren lagunak bereziki, Euskal-Herriaz eta euskaraz bezain axolatuak zirela Frantses errepublikaren politikaz, bertze batzu Frantziako errege-gaiaren edo iralle-ta-seroren interesez bezala. Dena dela, Arbeláide kalonjearen eskutitz batetarik ageri da zer estimu handitan zaukaten berak, Daranatz jaun apezak eta beste askok bizkaitar adixkidea: 1902-eko abuztuaren 21-ean idazten dio Broussain-iheldu den irailaren 11-ko biltzarrari buruz, erran dut joan den asteko bilkuran, demendrenoko jendetasunak debekatzen zaukula biltzat hori egitea, gure lehendakari-ordea eta Arana bezalako gizona preso zeno. Daranatz ere gogo bere-

ko agertu da"(Frantsesetik itzulia).

Manex Hiriart-Urruty bat berriz badakigu "euskal teoriatik" urrun egon dela beti, Abbadie bere Larresoroko buruzagia bezala (P. Broussain-i, 11-X-1901) eta berak aitortzen dauku "bere haurride euskaldunen fedear asko gehiago axola duela heien mintzairaz baino" (P. Broussain-i, 24-III-1903), bizkitarteaz ohartzeko gira ere 1894-ekotz "Bizkaitarra-ren" berri bazuela (A. Pochelou-ren hitza P. Broussain-i, 26-XI-1894) eta geroago 1902-eko egun ilunetan, ikusi beha da nola mintzo zaion Broussain-i preso ezarri dioten adiskideaz; "Eta gure Arana!... Zer gizon harrigarria!... Berriz harekin has baledi gue Biltzarra (Hendaiko biltzar fematua) eta haren presondegian harekin elgarretara baginte, gure Herriarentzat, gure mintzairarentzat, gure gizonentzat, euskal-ortografiarentzat, zer loria!... Bai ospe eta indar berri aurki lezakeela katakunba berri horietan hain gaitzetsia ta hain bizitorea den gure mintzaira maiteak. (P. Broussain-i, 12-VI-1902).

Azkenik erranen dugu Sabinok Arana-Goirik aurkitu zituela gure ustez Iparraldean bederen bi abertzale zintzo, bere gogokoak osoki: bat Ziberoan, Ataratzeko osagilea, Albert Constantin (1873-1957), Jan Batista Constantin (1847-1922) ziberotar idazle bikainaren semea eta bestzea Lapurdin, Hazparneko osagilea, Pier Broussain (1859-1920). Hazparneko medikuaren paperetan ditugu dudarik gabe hatzemanen abertzaletasunaren historia Iparraldetik egin nahi izanen deneko xehetasun aberatsenak. Anartean Mor dauzkagu, Sabinok berak, bere Hazparneko adixkide onari 1898-eko Azaroaren 15-etik 1902-eko, urtarrilaren 20-rat bidali sei eskutitzak. Aski dira ikusteko zenbatetaraino bat zauden, gogoz eta bihotzez, Bidasoaren bi aldetarik, Abandotar eta Hazpandar bi abertzale handiak: "Milesker zure azken bi gutunen gatik, dio Aranak Broussain-i, 1901-eko Abendoren 4-ean, Berriz ere ikusi dut horiekin zer den zure abertzaletasuna ta zer diren zure xede ederrak. Badakit zu eta ni beti elgarrekin batean ibiliko girela, funtsezko urrats gutiztan. Hau atsegina nerretzat!..." (Frantsesetik itzulia).

Agian Iparraldean ihesleku ta aterbe baizik ikusi nahi ez duten zenbait onartu nahiko du, historia hau ikertzearekin, Iparraldean bizi diren euskaldunek partehar dezaketela Herriaren erakuntzan!